

**BERMEOKO KOMUN PUBLIKO, KURTZIOKO IGOGAILUA ETA AZOKAKO  
APARKALEKUAREN GARBIKETA**

**KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA**

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Kultur Etxeko Batzar gelan, 2015eko uztailaren 29an, goizeko 09.08 direnean, batzen dira:

Idurre Bideguren Gabantxo A<sup>a</sup>, Mahaiburua  
Aritz Abaroa Cantuariense J<sup>a</sup>, Zinegotzia  
Xabier Ortuzar Butron J<sup>a</sup>, Zinegotzia  
Edurne Urrutia Uriarte A<sup>a</sup>, Udal Kontuhartzailea  
Karmele Muñoa Arrigain A<sup>a</sup>, Udaleko Idazkaria  
Laura Beotegi Otaola A<sup>a</sup>, kontratazio mahaiaren jarduneko idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeoko komun publiko, kurtzioko igogailua eta azokako aparkalekuaren garbiketa.

Aurkeztutako lehiatzaileak:

- Bakarra.- UNI2

Batzarra hasirik, "A" gutunazala zabaltzen da, hurrengo emaitzekin:

- Dokumentazio egokia

Lehiatzaile bakarra dagoenez, "B" gutunazala zabaltzen da.

- Dokumentazio egokia

Jarraian, "C" gutun-azala zabaltzen da, kontraturako honako proposamen ekonomikoa (BEZ kanpo) aurkeztu dala egiaztatuz:

- Eskaintza ekonomikoa 72.474,72€koa. (urte biko kontraturako)

Dokumentazioa Zerbitzu Saileko Teknikariari bideratzen zaio balorazioa eta bere proposamena egin dezan.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

**IDAZKARIAK**

